

EUSKAL GAIK UPV-EHU-KO GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO IKASKETETAN

Xabier Aierdi

Idazki honetan giza eta gizarte zientzietako ikasketetan euskal gaiak duten garrantzia azaltzen saiatuko naiz. Horretarako zenbait arlo aztertzeari ekingo diot. Lehenean, aztertuko dugu zein den EHU-ren irakaskuntza eskaintzan zientzia hauen garrantzia. Bigarrenean, karrera bakoitzean zenbatu egingo ditugu irakasgaiak eta, beraien barruan, euskal gaiak duten portzentaia. Hirugarrenean, EHU-k eskaintzen dituen hirugarren zikloak eta beste zenbait ikastaro aztertuko ditugu. Azkenik, ikerkuntzari ekingo diogu. Edonola ere, hur-bilketa hau koantitaboa da eta, beraz sakontzeko, agian, komenigarria litzateke zenbakiak izkututzen dutena azalera-terko eduki-analisira jotea.

I

Egun, Euskal Herriko Unibertsitateak 26 Zentru ditu eta, berauetatik, erdiak Zientzi Tekniko, Osasun eta Esperimentaletakoak diren bitartean beste erdiak Giza (sei) eta Gizarte Zientzietakoak (zazpi) dira. Beraz, EHU-n hala Zientzi Teknikoak* nola Gizartekoak** presentzi berdintsua dute.

1. Taula: E.H. Unibertsitateko Irakaskuntzak 'campus'-en arabera

	Gainontzeko Zientziak	Giza eta Gizarte Zientziak	
		Giza zientziak	Gizarte Zientziak
Araba	2	2	
Bizkaia	6	2	4
Gipuzkoa	5	3	2
Guztira	13	7	6

1. Artikulu hau ez da Gasteizeko hitzaldi egokitua baino.

*. Aurrerantzean, errezteko asmoz Zientzi Tekniko, Osasun eta Esperimentaletako Zientzi Tekniko izenarekin izendatuko ditut.

** Gauza bera egingo dut Giza eta Gizartekoekin Gizartekoak terminoa-ekin.

Areago, Fakultate eta Unibertsital Eskoletan irakaskuntzak (ikus **2. taula**) ere modu berdintsuan banatzen dira. Ezin daiteke esan, beraz, EHU-n, zenbakiak arabera, behintzat, Gizarte Zientziak baztertuak daudenik, perzeptioak besterik dirudien arren. Bestelako asuntua da, eta nolabait Unibertsitate barne antolamendu eta borondatek kanpokoak, ospe ikuspegitik karrerak duten balorazio soziala.

2. Taula: EHU-ko Ikastegi, Irakaskuntza eta Berezitasunak (zenbaki absolutu eta erlatiboetan)

Ikastegiak, irakaskuntzak eta Berezitasunak	Gainontzeko Zientziak	Giza eta Gizarte Zientziak	GUZTIRA
Fakultateak	7 (50)	7 (50)	14 (100)
Irakaskuntzak	14 (56)	11 (44)	25 (100)
Berezitasunak	31 (48)	34 (52)	65 (100)
Uniber. Eskola	6 (50)	6 (50)	12(100)
Irakaskuntzak	7 (54)	6 (46)	13(100)
Berezitasunak	20 (48)	22 (52)	42 (100)

Gainera, 2. taulan irakaskuntza eta dagozkien berezitasunen portzentaia aintzat hartu ezker aurreko datuak birbaieztatzen dira. Batz bestea, Fakultate, Unibertsital Eskola, Irakaskuntza eta Berezitasunen aldetik era bietako zientzien pisua eta presentzia guztiz antzekoa da. Beraz, EHU-k Gizarteko Zientzietan eskaintzen dien arreta kontutan hartzekoa da. Eta zehatzago ikusteko **3. taula** dugu.

Giza eta Gizarte Zientzien artean ez dago alde handirik EHU-n, Giza Zientzietako hiru eta Gizarteetako lau Fakultate, bost eta sei irakaskuntza eta, azkenik, hogeita hamazortzi berezitasun dagoelako. Unibertsital Eskolen kopurua berdina da Giza eta Gizarte Zientzietan, Irakaskuntzen ere berdina,

eta berezitasunak Giza Zientzien aldera doaz, hamasei seiren kontra. Lurraldeka, noski, Bizkaia du zientzi batzuk zein bes-teren presentzirik haundiena, hala bere pisu demografikoa nola unibertsitate hedadura ere haundiagoa delako lurralde honetan.

3. Taula: Gizarte eta Giza Zientziak, Campus, Fakultate, U. Eskola, Irakaskuntza eta Berezitasunen arabera

	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	GUZTIRA
ARABA			
Fakultateak	1		1
Irakaskuntzak	2		2
Berezitasunak	8		8
Uniber. Eskola	1		1
Irakaskuntzak	1		1
Berezitasunak	5		5
BIZKAIA			
Fakultateak	1	2	3
Irakaskuntzak	1	4	5
Berezitasunak	6	14	20
Uniber. Eskola	1	2	3
Irakaskuntzak	1	2	3
Berezitasunak	6	4	10
GIPUZKOA			
Fakultateak	1	2	3
Irakaskuntzak	2	2	4
Berezitasunak	6		6
Uniber. Eskola	1	1	2
Irakaskuntzak	1	1	2
Berezitasunak	5	2	7

II

Bigarren atal honetan, EHU-ko Giza eta Gizarte irakas- kuntzen erribisio bat egin dugu². Erribisio honek badu hasie- rako metodo arazorik. Lehena, sakontasunarena. Egun, euskal gaien presentzia aztertu gura izanez ezin gara ikas- gaien tituloetatik haruntzago joan. Beronek irakasle bakoitzar- en idiosinkrasia aztertzea eskatuko luke eta. Hots, inkesta pertsonalizatua egin beharko genuke eta fidagarritasun haun- diegirik gabe, seguruenik irakasleek euskal gaiak eskaintzen dicten arreta graduan esageratuko egingo luketelako. Bigarrena, "euskal gai"-aren zehaztapenarena. Zailegia da egun beronen neurtzea. Hasteko, "euskal gaia" delakoa fin- katzeko zenbait erizpide amankomuni heltzea komenigarria li- tzateke. Erabili izan ditudan datuak kontutan hartuta gerta daiteke beste norbaitek emaitza ezberdinak biltzea. Horrexegatik, jarraitu izan dudana prozedura (**4. taula**) azaldu- ko dut:

- Fakultate bakoitzeko karrera eta berezitasunen Ikasketa Planak aztertu ditut, eta baita berauen ikasturte kopurua kon- tutan hartu. Areago, irakasgaiak neurtzeko ondoko erizpidea erabili dut: karrera oso baten kasuan bost urteak hartu ditut oinarri gisa; berezitasunen kasuan, ordea, dagozkien ikasturte kopurua.

2. Giza eta Gizarte Zientzietako karrera guztien egungo Ikasketa Plangintza arakatu dugu.

I Badaezpada, karrera bakoitzean euskaraz eskaintzen diren irakasgaiak ere hartu ditut kontutan, helburua euskaraz ematen diren gai eta euskal gaien artean harremanik dagoen jakitea delarik.

I Ondoren, "euskal gaiak" bi modu ezberdinetan hartu ditut kontutan. Beronen ondorioz, irakasgai bakoitzak euskal gaiekin hiru harreman era izan ditzake: zuzena, zeharkakoa edo harreman eza.

Ž Azkenik, portzentaia ateratzeko euskal gai eta irakas- gaien kopurua kontutan hartu ditut (ikus **4. taulako** bigarren eta seigarren zutabeak).

4. taulako datuak hartuta, irakasgai guztietatik "euskal gai"-en portzentaia %12-koa baino ez da, hots, eskuharki, hamar irakasgaitik bat baino ez. Ikasketa Plangintza berriak onartu ondoren agian berriro aztertu beharko lirateke datu hauek, baina hobeto neurtzeko irakasgai bakoitzaren kredi- tuak kontutan hartuta. Egun, kredituen neurtzea ez da posible kasu guztietan. Gainera, aurretik esan moduan zaila da ira- kasgaiaren izenburua kontutan hartuta euskal gaia den ala ez jakitea. Halere, datuen arabera badaude zenbait karrera eta berezitasun aurreko batz bestekoa zeharo gainditzen dute- nak. Balorerik haundiena *Hizkuntz Pedagogia* berezitasunak aurkezten du, euskal gaitzat %69-a duelarik, baina harreman zeharkakoaz baliatuz. Hots, irakasgaiaren izenburuak euskal gaia dela esabiderik eman arren, ez du hala zertan izan beha- rrik. Kontrako kasua ere errez gerta daiteke, hau da, irakasgai baten izenburuak inolako susmobiderik ez eskaintzea baina berorren irakasleak, motibu pertsonal, ideologiko edo bestela- korik dela medio, euskal gai bihurtzea.

Historia karrerarena kasu bitxia da. Karrera honetan ira- kasgai ugari eta bereizi dago euskal gaietarako abagadune egokia eskain dezaketenak eta gure ustez hala da (% 48-a euskal gaia kontsidera genezake) baina, bestetik, ezin dugu berau segurtasun osoz ziurtatu. Aurreko bi kasuen ostean *Euskal Filologi* ezberdinak ditugu³, ia gehienetan batz beste- ko orokorraren gainetik daudelarik.

Euskal gaiekiko arreta beste zenbait arrazoi eta ibilbide bereiziren menpe dago ere. Esaterako, Leioako Gizarte eta Informazio Zientzietako⁴ eta Gipuzkoako Filosofi eta Hezkuntz Fakultateen kasuak ditugu. Fakultate bi hauetan eta dagoz- kien berezitasunetan euskal gaien presentzia nahiko interes- garria da eta, alde batetik, karreraren ezaugarrien ondorioa bada ere, bestetik, Fakultateenak ez ditugu ahaztu behar⁵. Aspektu guzti hauek zuzenago ikusteko **4.1. taula** dugu. Euskal gaiekiko Giza eta Gizarte Zientzien arreta ikusirik hurrengo ondorioak atera genitzake.

1. Ez da oso garrantzitsua euskal gaiek egungo Ikasketa Plangintzetan zuzenki duten presentzia. Agian, etorkizunari begira, Plangintza Berrietako Ibilbideek euskal gaiekiko arre- taren egungo portzentaia gainditu egin dezakete eskainiko dituzten berezitasun edo itinerarioekin.

2. Laugarren Taulan ikus dezakegunez askotan askoz garrantzitsuagoa da zeharkako aukera zuzeneko baina. Honela, guztira, euskal gaiekin zuzenki elkarloturik agertzen

3. Hala O.H.O. Irakaslego Eskoletan nola Filologi Fakultateetan ematen direnak.

4. Ez da ahaztu behar EHU-k Kazetaritza eta Irakaslego Eskolei euska- ratzeko lehentasuna eskaini zela. Euskaratzea eta Euskal Gaia izatearen arte- ko lokarria ez dago guztiz argi, baina lagungarri suertatzen da.

5. Fakultate hauetako historia eta irakaslegoak euskal gaietan eragin zuzena duela uste dut.

4. Taula: Giza eta Gizarte Zientzietako Irakaskuntzak, berezitasunak eta bakoitzean euskal gaiaren portzentaia.

FAKULTATEA BEREZITASUNA	Ikasturte Kopurua	IRAKASGAIK		EUSKAL GAIK			%
		Guztira	Euskaraz	Zuzenean	Zeharka	Guztira	
ARABA							
Filologi, Geografi eta Histori Fak.							
Histori Atala	5	44	23	1	20	21	48
Filologi Atala	5	30	7		5	5	17
Euskalduna	5	33	28	14		14	42
Frantsesa	5	27	6				
Ingelesa	5	29	6				
Klasikoa	3	15	7				
Klasikoa (greziera)	2	12					
Klasikoa (latina)	2	12					
Klasikoa (m. Klasikoa)	2	12					
O.H.O. erako Irak. U-Eskola			3				
Frantses Filologia	3	28	11	1		1	3
Giza Zientziak	3	29					
Euskal Filologia	3	27	25	3		1	11
Ingeles Filologia	3	28	11			0	0
GIPUZKOA							
Zuzenbide Fak.	5	25	20		4	4	16
Filosofi eta Hezkuntz Fak.							
Filosofi Atala (1. zik)	3	16	15			0	0
Zientzi Logika	2	16	6		2	2	13
Pentsamendu Sistemen, ...	2	16	7		2	2	13
Balio eta Kulturaren Filo...	2	14	7		2	2	14
Pedagogia							
Lehen Zikloa	3	15	15				
Hezkuntz Orientabidea	2	13	7		2	2	15
Hizkuntz Pedagogia	2	13	10		9	9	69
Pedagogia Diferentziala	2	13	6		4	4	31
Psikologi Fakultatea	5	35	25		2	2	6
Enpreaa Ikasketak U. Eskola	2	18	12				
Kontabilitatea	1	9	2		1	1	11
Finantza	1	9	2		1	1	11
O.H.O.erako Iraskales U. Eskola							
Giza Zientziak	3	29	28	4	3	7	24
Espainiar filologia	3	33	3		3	3	9
Euskal Filologia	3	26	23	3	3	6	23
Eskolaurrea	3	29	27		3	3	10
BIZKAIA							
Arte Ederrak (Lehen Zik.)							
Pintura	2	11	11				
Eskultura	3	37	7	2	2	4	11
Ikus-Entzutekoak	3	37	7	2	2	4	11
Disenua	3	37	7	2	2	4	11
Teknika Grafikoak	3	37	7	2	2	4	11
Kontserbazioa eta Zaharbe...	3	37	7	2	2	4	11
Ekonomi eta Enpr. Z. Fakult...							
Ekonomi Zientziak	3	21	21		4	4	19
Abagadunea eta Z. Publikoak	2	13	2		4	4	31
Hiri eta herrialdeetako Ekon...	2	13	1		1	1	8
Ekonomia Matematikoa	2	13	1				
Nazioarteko Ekon... eta Gara...	2	13	1		1	1	8
Enpresa Zientziak	3	21	21				
Finantzaketa	2	37	4				
Merkatal Zuzenda...	2	37	4				
Pertsonal Zuzenda...	2	37	4				
Akturiala	2	13	1				
Gizarte eta Informazio Z. Fak.							
Informazio Zientziak	3	21	21	5		5	24
Kazetaritza	2	14	14	2		2	14
Publizitatea	2	17	11				
Politika Zientziak eta Soziologia2	13	12	1		1		8
Soziologia	1	7	6	2		2	29
Industri eta Hiri Soziologia	2	14					
Soziologia Politikoa	2	14					
Politika Zientziak	3	20	4	5		5	25
O.H.O. erako Irak... U. Eskola							
Giza Zientziak	3	28	26	2	4	6	21
Frantses Filo...	3	27	16	1	3	4	15
Ingeles Filo...	3	27	16	1	3	4	15
Euskal Filo...	3	25	22	9		9	36
Eskolaurrea	3	27	25	1	3	4	15
Gizarte Graduatuen U. Eskola	3	18	18	1	2	3	17
GUZTIRA		1378	646	68	103	171	12

4.1. TAULA: Euskal Gaiet arreta gehien eskaintzen dizkieten karrera eta berezitasunak

FAKULTATEA edo U. ESKOLA	BEREZITASUNA	IKASTURTE KOPURUA	IRAKASGAIK		EUSKAL GAIK			E. G. %
			GUZTIRA	EUSKARAZ	ZUZENA	ZEHARKA.	GUZTIRA	
Pedagogia	Hizkuntz Pedagogia	2	13	10		9	9	69
Filologi, Historia,...	Historia (Ar.)	5	44	23	1	20	21	48
Filologi	Euskalduna	5	33	28	14		14	42
O.H.O. (Bi)	Euskal Filo.	3	25	22	9		9	36
Pedagogia	Pedagogia Diferentziala	2	13	6	4	4		31
Sarriko	Abagadunea eta Z. Publikoak	2	13	2	4	4		31
Soziologia	Soziologia	1	7	6	2		2	29
Soziologia	Politika Zientziak	3	20	4	5		5	25
O.H.O (Donostia)	Giza zientziak	3	29	28	4	3	7	24
Kazetaritza	Informazio Zientziak	3	21	21	5		5	24
O.H.O (Donostia)	Euskal Filologia	3	26	23	3	3	6	23
O.H.O. (Bilbao)	Giza Zientziak	3	28	26	2	4	6	21
Sarriko	Ekonomi Zientziak	3	21	21		4	4	19
Filologi	Erromanikoa	5	30	7		5	5	17
Gizarte Graduatuen U. Eskola		3	18	18	1	2	3	17
Zuzenbida Fak.		5	25	20		4	4	16
Pedagogia	Hezkuntz Orientabidea	2	13	7		2	2	15
O.H.O. (Bilbao)	Frantses Filo...	3	27	16	1	3	4	15
O.H.O. (Bilbao)	Ingeles Filo...	3	27	16	1	3	4	15
O.H.O. (Bilbao)	Eskolaurrea	3	27	25	1	3	4	15
Filos./ Hezk (Don.)	Balio eta Kult.Filos.	2	14	7		2	2	14
Kazetaritza	Kazetaritza	2	14	14	2		2	14
Filos./ Hezk (Don.)	Zientzi Logika	2	16	6		2	2	13
Filos./ Hazk (Don.)	Pentsam. Sist.	2	16	7		2	2	13
OHO. (Ara.)	Euskal Filologia	3	27	25	3		3	11
Enpresaria.(as)	Kontabilitatea	1	9	2		1	1	11
Enpresaria.(ss)	Finantza	1	9	2		1	1	11
arte Ederrak	Pintura	3	37	7	2	2	4	11
arte Ederrak	Eskultura	3	37	7	2	2	4	11
arte Ederrak	Ikus-Entzutekoak	3	37	7	2	2	4	11
arte Ederrak	Diseinua	3	37	7	2	2	4	11
arte Ederrak	Teknika Grafikoak	3	37	7	2	2	4	11
arte Ederrak	Kontserb. eta Zaharbe...	3	37	7	2	2	4	11
O.H.O (SS)	Eskolaurrea	3	29	27		3	3	10
O.H.O (SS)	Espainiar filologia	3	33	3		3	3	9
Sarriko	Hirieta herrialdeetako Ekon...	2	13	1		1	1	8
Sarriko	Nazioarfeko Ekon... eta Gara...	2	13	1		1	1	8
Soziolo	Politika Zient. eta Soz.	2	13	12	1		1	8
Psikologi Fakultatea		5	35	25		2	2	6
OHO. (Ara.)	Giza Zientziak	3	29	11	1		1	3
OHO. (Ara.)	Ingeles Filologia	3	28	11			0	0
Fil./ Hez (ss)	Filosofi Atala (1. zik)	3	16	15			0	0
Filologi	Frantsesa	5	27	6				
Filologi	Ingelesa	5	29	6				
Filologi	Klasikoa	3	15	7				
Filologi	Klasikoa (greziera)	2	12					
Filologi	Klasikoa (latina)	2	12					
Filologi	Klasikoa (m. Klasikoa)	2	12					
OHO. (Ara.)	Frantses Filologia	3	28	3				
Filosofi eta Hezkuntz Fak.								
Pedagogia	Lehen Zikloa	3	15	15				
Enpresa	Ikasketak U. Eskola	2	18	12				
Arte Ederrak	(Lehen Zik.)	2	11	11				
Sarriko	Ekonomia Matematikoa	2	13	1				
Sarriko	Enpresa Zientziak	3	21	21				
Sarriko	Finantzaketa	2	37	4				
Sarriko	Merkatal Zuzenda...	2	37	4				
Sarriko	Pertsonal Zuzenda...	2	37	4				
Sarriko	Akturiala	2	13	1				
Leioa. perio	Publizitatea	2	17	11				
Soziolo	Industri eta Hiri Soziologia	2	14					
Soziolo	Soziologia Politikoa	2	14					
GUZTIRA			1378	646	68	103	171	12

diren irakasgaien kopurua 94-koa da eta zeharkakoen “*birtualitatea*” 162 irakasgaikoa da. Datu hau itxaropen bidea ere izan daiteke, ze euskal gaien presentzia gela barruan biziki areagotu daiteke irakasleen idiosinkrasiaren arabera. Are gehiago, gainera, irakasgai orokorrenak lehen zikloan daude eta gehienak gaur egun euskaraz ere irakasten dira, beraz ez litzateke harriztekoa irakaslego euskalduna bertako gaiez baliatzea irakaspenak azaltzerako orduan.

3. Badirudi Giza eta Gizarte Zientzietan badaudela zenbait karrera euskal gaiei irekiago daudenak (Historia, Filologia, Soziologia, Kazetaritza, etab.). Beste batzuetan aldiz (Psikologia, beste zenbait Filologia, Arte Ederretako zenbait berezitasun, eta Ekonomi eta Entrepresa Zientzietako arlo ezberdinak) espezializazio edo irakasgaien zehaztasun haundiagoa dela eta ez dute aukera hau bermatzen.

Datu hauek sakontzeko biderik hoberena Unibertsitateak eskaintzen dituen beste zenbait titulaziotara jotzea da.

III

Arlo hau aztertzeko EHU-ko sailek azken zazpi urteetan eskaini dituzten ikastaroak arakatuko ditugu eta, batez ere, eurretan dagoen euskal gaien presentzia. Bi eratako ikastaroe-tara mugatuko dugu gure ikerketa: Doktorego Ikastaro eta Graduondoko Berezko Tituloetara⁶. Doktorego Ikastaroetan azken zazpi urteetako informazioa batu dugu eta Graduondoko Berezko Tituloetan azken hiru urteetako⁷.

Doktorego Ikastaroei dagokienean esan beharreko lehen datua ondokoa da: egun Gizarteko Teknika Zientziak beste kreditu eskaintzen dituzte. Areago, 1987-etik 1993-ko doktorego ikastaroen kredituak ia bikoiztu egin dira Gizarte Zientzietan. Honela, 957 kreditutik 1830-ra pasatu da (Ikus 5. taula).

Baina, “euskal gaien” kreditu kopuruak ez du antzeko hazkunderik izan, 165tik 263ra pasatu baita, zenbaki indizeetan bilakaera ondoko taulakoa izan delarik (6. taula).

Zenbakiotan ikus daitekeenez, joera goranzkoa den arren, euskal gaien bilakaera ez da beti haskorra izan, lkuspegi honetatik ukaezina da ikastaro emaileen eragina. Gertatu izan da biurteko batean eskaintzen zen programa edo azpiprograma bat hurrengoetan desagertzea. Era guztietara, Giza Zientzien eskaintza Gizartekoena baino haundiagoa da, nahiz eta azken hauek zenbaki indizeetan bikoiztu aztertu garaian. Halere, euskal gaien pisu erlatiboak ez du hazkunde errebantzerik ezagutu, ondoko taulan (7.a) ikusi daitekeenez:

Euskal Gaiak edo mantendu egiten dira (Gizarte Zientzietako kasuan) edo jaitsi (Giza Zientziak) bere pisu erlatiboan. Honela, doktorego ikastaroen ugaltzeak ez dakar euskal gaietan sakontze eta hazkunderik. Beraz, garrantzitsuagoa izan daiteke zeintzu diren euskal gaiei arreta gehien eskaintzen dieten sailek aztertzea. Gizarte Zientzietan ondoko sailak nabarmenduko ginituzke: Ekonomia aplikatua, Nazioarteko

Ikasketa eta Politika Zientziak eta Hezkuntzarako Ikerkuntz Metoduenak.

Giza Zientzietan: Euskal Filologia, Garaiko Historia, Hizkuntzaren Pedagogia eta Hezkuntzaren Teoria eta Historiako sailak. Departamento guzti hauen kasuan elkar osatzen duten bi osagai agertzen dira: euskal gaiekiko ‘nola-baiteko’ kidetasuna eta irakasleen kekkak. Gehienetan, euskara (hizkuntza eta hezkuntza eretan), Euskal Herriko historia eta egungo zenbait fenomeno dira euskal gaien osakin funtsezkoenak. Datu hauek frogatzeko eranskin modura bi taula ditugu (8-a eta 8.1 -a taulak).

Bestalde, 1991. ikasturtetik aurrera, unibertsitate guztien antzera Euskal Herriko Unibertsitateak ordurarte zeuden zenbait ikastaro berreskuratzen ditu eta berezko graduondoko titulu bilakatzen. 1991-tik gaurko egunerarte EHU-k eskaintzen dituen graduondoko titulu kopurua hasten dago etengabe, ondoko taulak (9.ak) erakusten duen moduan.

Hiru ikasturte hauetan, Gizarteko Zientziak 15 titulu berri sortu dituzte, epe berberean Teknikoak 8-tan gutxiagotu direlarik. Gizartekoetan hazkunderik haundiena Gizarte Zientzietan dagokiena da (12 titulu berri). Baina hazkunde honek ez du euskal gaiekiko arreta haundiagorik ekarri (10. taula).

Taula honetan, alde batetik, urte bakoitzean zientzi era bakoitzeko titulu guztien kredituak ditugu eta, bestetik, euskal gaiei dagozkien kredituak eta portzentaia -parentesi artean-. Titulu hauen fitxan Masterra, Unibertsitate Diploma edo Aduaren izenburua eta banatzen deneko irakasgaien informazioa datoz, irakasgai atal bakoitzean izkututzen dena jakiteko, edozein karrerako ikasketa planeko irakasgaien kasuan gertatu bezala, urrunago joan beharko genuke eta irakasle bakoitzak ematen dion enfokea ezagutu. Noski, egun, hau ez da posible, beraz irakasgaiak kontutan hartuta 10. taulako datuak ditugu.

Taulako zenbait datuak ikurtxo bat du. Ikurrak euskal gaiak neurtzeko izan ditugun zalantza eta zailtasunak adierazten ditu. Honela, Gizarte Zientzietako graduondoko berezko tituloetan ez dago ia euskal gairik. Kasurik hoberenean portzentaia %6,6-ra heltzen da. Gainera, kasu honetan ikastaro bakar batek (Zuzenbide Autonomikoak) ia kreditu erdiak suposatzen ditu (54). Giza Zientzietako berezko tituloetan zifrak ez dira askoz hobeak, zeren ikurra dutenak ikastaro batez edo biz, gehienez, osatzen dira: bata, Itzulpen Titulua eta, bestea, Bigarren Hizkuntza erakusteko agertzen diren arazoetara zuzendutakoa. Beraz, badirudi espezializazioak euskal gaiekiko deslotura adierazten duela. Baieztapen honek zer sakondu duen arren (euskal gaia zer den definitzeko dagoelako eta irakasle konkretuen gelan sartu ezin garelako), irakasgai generallistetatik espezializatueta pasatzeaan euskal gaien desagertzea areagotu egiten dela inolako zalantzarik gabe esan daiteke. Egon, badago salbuespenik: historia eta hizkuntzarena.

IV

Atal honetan, azken zortzi urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslego eta ikerlari taldeek egin izan dituzten ikerketen berri emango dugu. Alde batetik, ikerketetan euskal gaiek izan duten presentzia aztertuko dugu. Bestetik, azken urteetan Gizarteko Zientzietan egin izan diren tesien gaiak aztertuko ditugu.


6. Unibertsitate Hedakuntzarako Ikastaroak aztertu nahi izan ditugu ere, baina EHU-k honetaz duen informazioa zeharo sakabanatua dago eta ez da posible izan osorik biltzea. Bestetik, Udako Ikastaroak ere aztertu gura izan ditugu baina informazio biltzen gaude.

7. Orain dela hiru urte traspasatu zitzaizkion Unibertsitateari Titulo hauekiko eskubideak.

5. Taula: Gizarte eta Giza Zientzietako Sailek 1987-91 1993-ra arte eskaini izan dituzten doktorego ikastaroak kredituetan eta hala euskal galekiko nola euskararekiko harremana

	1987-9	1988-90	1989-91	1990-92	1991-3	1992-4	1993-5
GIZARTE ZIENTZIAK	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.
Ekonomi Analisia	38	33		27	35		64
Ikus-Entzuteko kom. eta Publizitatea	43 6		29 6	34	33 2	35	36
Zuzenbide Zibila			52		48	88	54
Konstituzio Z. eta T. Politikoaren H. Konstituzio eta Administrazio Z.				29 8	27 6	33 10	29 2
Ekonomi Aplikatua I	42 6	42 8	60 21	60 18	66 9	36 24	46 30
Ekonomi Aplikatua I						35	39
Ekonomi Aplikatua I						27	
Zuzenbide Pribatua	49 3	45		56 4	37 5		
Zuzenbide Publikoa	26,5	28	42 4		42 3		42
Zuzenbide Publikoa			34 5	47 3			
Finantz Ekonomia I	24	20	33	26	30	66	28 1
Finantz Ekonomia II	28 4	26 2	26	35	47	58	46
Nazioarteko Ikas. eta Politika Zien.					50 5	45 8	48 18 2
Nazioarteko Ikas. eta Politika Zien.							34 8
Hezkuntzarako Ikerkuntz Metodoak				51 7,5 14			79 29 24
Enpresa Gestio eta Berri. Ebaluazioa	54 12	63 12	57 12		40 8		
Kazetaritza	38,5 8	42 5 5	44 6	51 3 6	33 3 3	32 13 8	40 9 11
Kazetaritza II					28 3	34 4	36 2
Oinarrizko Psikologi Prozesuak	32,5	30	47	38	41	36	30
Oinarrizko Psikologi Prozesuak							40
Bilakaeraren eta Hezk. Psikologia					48 2	48 1 2	95 2 12
Gizarte Psikologia eta P.Z. Metodol...	42 12	42 12	36 4 2	31 2 2	37 4	38 8 2	
Soziologia	35 11	43 6	51 21	47 11	74 15	80 12 2	42 5 2
Soziologia II							40 9 3
GIZARTE ZIENTZIAK GUZTIRA	452,5 59 3	414 45 5	511 69 12	532 53 26	759 63 13	716 81 14	908 118 57
II. GIZA ZIENTZIAK	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.	Kr. E.G. EuS.
Eskultura I.I.G.			42	34	45		55 2
Ikasketa Klasikoak	31	41	48	51	57 2	42 3	52,5 2
Espainiar Filologia	32 6	42 7	44 7	37 2	67 8 4	57 12 4	60 4 2
Frantses Filologia	21	23	28 2	21	41	47	38
Frantses Filologia							38
Ingeles eta Alemaniar Filologia		21	36	35	66 6 9	59 4	91 5
Euskal Filologia	24 20 20	27 24 21	52 50 46	43 43 41	55 49 49	49 49 47	60 58 53
Euskal Filologia		22 20 19					
Filologjak							57 10
Filosofia	46 6	47 4	47 2	47 2	49 4	45 4	42 2
Balioen Filosofia eta G. Antropologia	22 6	22 3 22	64 6 8	30 4 2	35 2	54 3 2	48 2 2
Balioen Filosofia eta G. Antropologia				28	29	34	38
Geografia, Historiaurrea eta Arkeo.	33 3	74 5			39 6		50 3
Garaiko Historia	59 46	38 26	34 23 2	47 38 2	25 16	39 14	45 26
Garaiko Historia					36 25 2		
Artearen Historia	52 4	59 12		38		29	53,5 4
Ekonomi Historia eta Erakundeak	24 10	24 12	24 20	29 16	29 20	23 11	23 9
Erdi Aroaren, Aro Berrearen,...			73	29 3	52 9	42 7	46,5 8
Logika eta Zientziaren Filosofia	42	49	24 24	73	43	33	39
Logika eta Zientziaren Filosofia	32	32	79	23 23	31		
Hizkuntzaren Pedagogia					100 30 26	83 26 21	
Hizkuntzaren Pedagogia					33 33 33		
Nortasuna, Psikologi Ebaluazioa,...	40	44	34	34	33	30	
Pintura I.I.G.			40	40	44	95 2	59
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	47 11 9	85 30 26	93 36 26	39 39 39		41 21 19	26 12 15
Hezkuntzaren Teoria eta Historia						38 3	
GIZA ZIENTZIAK GUZTIRA	505 106 35	650 139 92	762 142 110	678 145 109	909 204 129	840 155 97	921,5 145 74
GUZTIRA	957,5 165 38	1064 134 97	1273 211 122	1210 198 135	1668 267 142	1556 236 111	1830 263 131

1. Grafikoa. Giza eta Gizarte Zientzietako Doktorego Ikastaroen eskaintza (kredituetan) eta dagozkien euskal gaien kopurua 1987-93 (Zenbaki absolutetan)



6. Taula: Giza eta Gizarte Zientzietako doktorego ikastaroetako Euskal gaien bilakaera (kredituetan) zenbaki indizietan. 1987-93

	1987-9	1986-90	1989-91	1990-92	1991-3	1992-4	1993-5
GIZARTE ZIEN.	(59)100	76	117	90	107	137	200
GIZA ZIENTZIAK	(106)100	131	134	137	192	146	137
GUZTIRA	(165)100	112	128	120	162	143	159

7. Taula: Giza eta Gizarte Zientzietako doktorego ikastaroetako kredituak eta euskal gaien kreditu eta pisu erlatiboa (portzentaietan). 1987-93

	1987-9	1986-90	1989-91	1990-92	1991-3	1992-4	1993-5
GIZARTE ZIEN.	452,5	414	511	532	759	716	908
Euskal Gaiak	59	45	69	53	63	81	118
Euskal Gaien %	13	11	14	10	8	11	13
GIZA ZIENTZIAK	505	650	762	678	909	840	921,5
Euskal Gaiak	106	139	142	145	204	155	145
Euskal Gaien %	21	21	19	21	22	18	16
GUZTIRA	957,5	1064	1273	1210	1668	1556	1829,5
Euskal Gaiak	165	184	211	198	267	236	263
Euskal Gaien %	17	17	17	16	16	15	14

8 Taula: EHU-KO Giza eta Gizarte Zientzietako Sailek eskaintako doktorego ikastaroen kreditu zenbakia, eta dagozkien euskal gaien eta euskararen presentzia (kredituetan). 1987-1993

	1987-9	1988-90	1989-91	1990-92	1991-3	1992-4	1993-5
GIZARTE ZIENTZIAK	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.
Ekonomi Analisia	38	33		27	35		64
Ikus-Entzuteko kom. eta Publizitatea	43 6		29 6	34	33 2	35	36
Zuzenbide Zibila			52		48	88	54
Konstituzio Z. eta T. Politikoaren H. Konstituzio eta Administrazio Z.				29 8	27 6	33 10	29 2
Ekonomi Aplikatua I	42 6	42 8	60 21	60 18	43 8	25 1	40 3 3
Ekonomi Aplikatua I					66 9	36 24	46 30
Ekonomi Aplikatua I						35	39
Zuzenbide Pribatua	49 3	45		56 4	37 5	27	
Zuzenbide Publikoa	26,5	28	42 4		42 3		42
Zuzenbide Publikoa			34 5	47 3			
Finantz Ekonomia I	24	20	33	26	30	66	28 1
Finantz Ekonomia II	28 4	26 2	26	35	47	58	46
Nazioarteko Ikas. eta Politika Zientziak					50 5	45 8	48 18 2
Nazioarteko Ikas. eta Politika Zientziak							34 8
Hezkuntzarako Ikerkuntz Metodoak				51 7,5 14			79 29 24
Enpresa Gestio eta Berri. Ebaluazioa	54 12	63 12	57 12		40 8		
Kazetaritza	38,5 8	42 5 5	44 6	51 3 6	33 3 3	32 13 8	40 9 11
Kazetaritza II					28 3	34 4	36 2
Oinarritzko Psikologi Prozesuak	32,5	30	47	38	41	36	30
Oinarritzko Psikologi Prozesuak							40
Bilakaeraren eta Hezk. Psikologia					48 2	48 1 2	95 2 12
Gizarte Psikologia eta P.Z. Metodol...	42 12	42 12	36 4 2	31 2 2	37 4	38 8 2	
Soziologia	35 11	43 6	51 21	47 11	74 15	80 12 2	42 5 2
Soziologia II							40 9 3
GIZARTE ZIENTZIAK GUZTIRA	452,5 59 3	414 45 5	511 69 12	532 53 26	759 63 13	716 81 14	908 118 57
II. GIZA ZIENTZIAK	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.
Eskultura I.I.G.			42	34	45		55 2
Ikasketa Klasikoak	31	41	48	51	57 2	42 3	52,5 2
Espainiar Filologia	32 6	42 7	44 7	37 2	67 8 4	57 12 4	60 4 2
Frantses Filologia	21	23	28 2	21	41	47	38
Frantses Filologia							38
Ingeles eta Alemaniarr Filologia		21	36	35	66 6 9	59 4	91 5
Euskal Filologia	24 20 20	27 24 21	52 50 46	43 43 41	55 49 49	49 49 47	60 58 53
Euskal Filologia		22 20 19					
Filologiak							57 10
Filosofia	46 6	47 4	47 2	47 2	49 4	45 4	42 2
Balioen Filosofia eta G. Antropologia	22 6	22 3 22	64 6 8	3 0 4 2	35 2	54 3 2	48 2 2
Balioen Filosofia eta G. Antropologia				28	29	34	38
Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia	33 3	74 5			39 6		50 3
Garaiko I-histona	59 46	38 26	34 23 2	47 38 2	25 16	39 14	45 26
Garaiko Historia					36 25 2		
Artearen Historia	52 4	59 12		38		29	53,5 4
Ekonomi Historia eta Erakundeak	24 10	24 12	24 20	29 16	29 20	23 11	23 9
Erdi Aroaren, Aro Berrearen,...			73	29 3	52 9	42 7	46,5 8
Logika eta Zientziaren Filosofia	42	49	24 24	73	43	33	39
Logika eta Zientziaren Filosofia	32	32	79	23 23	31		
Hizkuntzaren Pedagogia					100 30 26	83 26 21	
Hizkuntzaren Pedagogia					33 33 33		
Nortasuna, Psikologi Ebaluazioa,...	40	44	34	34	33	30	
Pintura I.I.G.			40	40	44	95 2	59
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	47 11 9	85 30 26	93 36 26	39 39 39		41 21 19	26 12 15
Hezkuntzaren Teoria eta Historia			38 3				
GIZA ZIENTZIAK GUZTIRA	505 106 35	650 139 92	762 142 110	678 145 109	909 204 129	840 155 97	921,5 145 74
GUZTIRA	157,5 165 38	1064 184 97	1273 211 122	1210 198 135	668 267 142	1556 236 111	1830 263 131

8.1. Taula: EHU-ko Giza eta Gizarte zientzietako Sailek urtero eskainitako Doktorego ikastaro bakoitzaren euskal gai eta euskararen portzentaia. 1987-93.

	1987-9	1988-90	1988-91	1990-92	1991-3	1992-4	1993-5
GIZARTE ZIENTZIAK	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. EG Eus	Kr. E.G. Eus.
Ekonomi Analsia	100	100		100	100		100
Ikus-Entzuteko kom. eta Publizitatea	100 14		100 21	100	100 6	100	100
Zuzenbide Zibila			100		100	100	100
Konstituzio Z. eta T. Politikoaren H.				100 28	100 22	100 30	100 7
Konstituzio eta Administrazio Z.					100 19	100 4	100 8 8
Ekonomi Aplikatua I	100 14	100 19	100 35	100 30	100 14	100 67	100 65
Ekonomi Aplikatua I						100	100
Ekonomi Aplikatua I						100	
Zuzenbide Pribatua	100 6	100		100 7	100 14		
Zuzenbide Publikoa	100	100	100 10		100 7		100
Zuzenbide publikoa			100 15	100 6			
Finantz Ekonomia I	100	100	100	100	100	100	100 4
Finantz Ekonomia II	100 14	100 8	100	100	100	100	100
Nazioarteko Ikas. eta Politika Zientziak					100 10	100 18	100 38 4
Nzioarteko Ikas. eta Politika Zientziak							100 24
Hezkuntzarako Ikerkuntz Metodoak				100 15 27			100 37 30
Enpresa Gestio eta Berri. Ebaluazioa	100 22	100 19	100 21		100 20		
Kazetaritza	100 21	100 12 12	100 14	100 6 12	100 9 9	100 41 25	100 23 28
Kazetaritza II					100 11	100 12	100 6
Oinarrizko Psikologi Prozesuak	100	100	100	100	100	100	100
Oinarrizko Psikologi Prozesuak							100
Bilakaeraren eta Hezk. Psikologia					100 4	100 2 4	100 2 13
Gizarte Psikologia eta P.Z. Metodol...	100 29	100 29	100 11 6	100 6 6	100 11	100 21 5	
Soziologia	31	100 14	100 41	100 23	100 20	100 15 3	100 12 5
Soziologia II							100 23 8
GIZARTE ZIENTZIAK GUZTIRA	100 13 1	100 11 1	100 14 2	100 10 5	100 8 2	100 11 2	100 13 6
II. GIZA ZIENTZIAK. SAILAK	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus	Kr. E.G. Eus.	Kr. E.G. Eus.
Eskultura I.I.G.			100	100	100		100 4
Ikasketa Klasikoak	100	100	100	100	100 4	100 7	100 4
Espainiar Filologia	100 19	100 17	100 16	100 5	100 12 6	100 21 7	100 7 3
Frantses Filologia	100	100	100 7	100	100	100	103
Frantses Filologia							100
Ingeles eta Alemaniar Filologia		100	100	100	100 9 14	100 7	100 5
Euskal Filologia	100 83 83	100 89 78	100 96 88	100 100 95	100 89 89	100 100 96	100 97 88
Euskal Filologia		100 91 88					
Filologiak							100 18
Filosofia	100 13	100 9	100 4	100 4	100 8	100 9	100 5
Balioen Filosofia eta G. Antropologia	100 27	100 14 100	100 9 13	100 13 7	100 6	100 6 4	100 4 4
Baimen Filosofia eta G. Antropologia				100	100	100	100
Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia	100 9	100 7			100 15		100 6
Garaiko Historia	100 78	100 68	100 68 6	100 81 4	100 64	100 36	100 58
Garaiko Historia					100 69 6		
Artearen Historia	100 8	100 20		100		100	100 7
Ekonomi Historia eta Erakundeak	100 42	100 50	100 83	100 55	100 69	100 48	100 39
Erdi Aroaren, Aro Berriaren,...			100	100 10	100 17	100 17	100 17
Logika eta zientziaren Filosofia	100	100	100 100	100	100	100	100
Logika eta Zientziaren Filosofia	100	100	100	100 100	100		
Hizkuntzaren Pedagogia					100 30 26	100 31 25	
Hizkuntzaren Pedagogia					100 100 100		
Nortasuna, Psikologi Ebaluazioa,...	100	100	100	100	100	100	
Pintura I.I.G.			100	100	100	100 2	100
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	100 23 19	100 35 31	100 39 28	100 100 100		100 51 46	100 46 58
Hezkuntzaren Teoria eta Historia						100 8	
GIZA ZIENTZIAK GUZTIRA	100 21 7	100 21 14	100 19 14	100 21 16	100 22 14	100 18 12	100 16 8
G U Z T I R A	100 17 4	100 17 9	100 17 10	100 16 11	100 16 9	100 15 7	104 14 7

9. Taula: Graduondoko berezko tituluen bilakaera. 1991-93

	1991-2	1992-3	1993-4
Zientzia Teknikoak	33	25	25
Giza zientziak Gizarte Zientziak	9 25	9 34	12 37
Guztira	34	43	49

10. Taula: EHU-ko Graduondoko berezko tituluen eskaintza. 1991-1994 ikasturteak

urteak	ikas.	Gizarte Zientziak		ikas.	Giza Zientziak	
		Kredituak	E. Gaia		Kredituak	E. Gaia
91	25	1110,3(100%)	15(1,35)	9	680,5	85* (12,49)
92						
92	34	1620,1	107* (6,6)	9	547,5	140,5* (25,66)
93						
93	37	1676	39 (2,32)	12	621,5	195,5* (31,45)
84						
84						40,5 (6,51)

11. Taula: Giza eta Gizarte Zientzietako Ikerketa eta Euskal Gaiak (zenbati absolututan). 1986-93.

ZIENTZIAK		1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993
GIZARTE	IKERKETAK	13	19	17	17	35	17	25	44
	E. GAIA	3	7	7	4	5	6	8	18
GIZA	IKERKETAK	6	4	14	23	21	18	22	35
	E. GAIA	1	1	9	17	12	13	15	19
GUZTIRA	IKERKETAK	19	23	31	40	56	35	47	79
	E. GAIA	4	8	16	21	17	19	23	37

12. Taula: Giza eta Gizarte Zientzietako Ikerketa eta Euskal Gaiak (zenbaki indizeetan). 1986-93.

ZIENTZIAK		1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993
GLZARTE	IKERKETAK	100	146	131	131	269	131	192	338
	E. GAIA	100	233	233	133	167	200	267	600
GIZA	IKERKETAK	100	67	233	383	350	300	367	583
	E. GAIA	100	100	900	1700	1200	1300	1500	1900
GUZTIRA	IKERKETAK	100	121	163	211	295	184	247	416
	E. GAIA	100	200	400	525	425	475	575	925

13. Taula: Giza eta Gizarte zientzietako Sailek egin izan dituzten ikerkuntzak eta sail bakoitzaren ekarpena hala ikerkuntza osoan nola euskal gaietan (portzentai bertikalak). 1986-93

	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993
I. GIZARTE ZIENTZIAK. SAILAK	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.
Ekonomia Analisi Saila	16	30	10	3	14		6 4	
Ikus-Entzuteko Kom. eta Publi.	5			3	2 6	3	2 2	3 3
Zuzenbide Zibila				3		3 5		1
Zuzenbide Pribatua	5					6	4	
Konstituzio eta Administrazio Z.								3 5
Expresaren Zuzenbide Saila								3
Zuzenbide Publikoa	5	4 13	6 13	8 5	11 6		2	1
Hizkuntza eta Litera. Didaktika Saila	5 25			3 5			2 4	1 3
Matematika eta Z. Esperimentalen Didak	5	4 13						
Ekonomia Aplikatua I		9 13				3	2	3 3
Ekonomia Aplikatua III						3		5 5
Finantz Ekonomia I			3	3	2			1
Finantz Ekonomia II	5		3	3		3	2	
Nazioarteko Ikas. eta Politika-Zi.						6 5	4 4	4 3
Enpresa Gestio eta Berri. Ebaluazioa								1 3
Ekonomi Analisaren Oinarriak								5 3
Ekonomia Publikorako Institutua								1
Kriminologiarako Euskal Institutua								1 3
Hezkuntzarako Ikerkuntz eta Diagnosi...							2	4 3
Industri Ekonomia				3				
Hizkuntz Pedagogia eta Hezkun. Ikerketa	5 25	4 13	6 6		5	3		
Kazetaritza			3 6	5 5	7	3 5	6 4	1
Nortasuna, Psikologi Ebaluazioa.	16 25	4 13	6	8 5	5		2	4 3
Oinarrizko Psikologi Prozesuak		4	3	3		3	2	1
Bilakaeraren eta Hezk. Psikologia		4 13	3		2	3	2	3
Gizarte Psikologia eta P.Z- Meted.		9	3 6	3	7	3	2	3 3
Soziologia		4 13			5 12	6 11	6 13	4 5
Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila		4	6 13		2 6	3 5	2 4	4 5
GIZARTE ZIENTZIAK. GUZTIRA	68 75	83 88	55 44	43 19	63 29	49 32	53 35	56 49
II. GIZA ZIENTZIAK. SAILAK								
Irudigintza				3	4			
Eskultura I.I.G.								1
Ikasketa Klasikoak			3 6	3		11 11	9 9	4 3
Espainiar Filologia	5 25	4 13		5 10	2 6		4 9	5 8
Frantses Filologia					4			
Euskal Filologia			6 13	3 5	2 6	3 5	2 4	1 3
Filosofia		4		3				4
Balioen Filosofia eta G. Antropo...	5	4	3		4 6	6 5	4	3
Erdi Aroaren, Aro Berriaren.							4 9	
Geografia, Historiarrea eta Arkeol	5		3	3 5	4 6		2	1 3
Garaiko Historia			16 31	23 43	11 35	20 37	17 30	14 27
Artearen Historia	5				2			3 5
Ekonomi Historia eta Erakundeak			3 6	10 19	4 12	6 11		
Erdi Aroaren, Aro Berriaren,.				3				1 3
Logika eta Zientziaren Filosofia	11	4	6	3	2	3	2	8
Pintura Saila			3	3	2	3	2 4	
GIZA ZIENTZIAK. GUZTIRA	32 25	17 13	45 56	58 81	38 71	51 68	47 65	44 51
	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993
	I Ker. E.G	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker. E.G.	I Ker.	I Ker. E.G.	Ker. E.G.
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK. GUZTIRA	100 100	100 100	100 100	100 100	100 100	100 100	100 100	100 100

14. Taula: 1987tik 1993-ra Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateetan aurkeztu izan diren tesiak eta euskal gaiekin eta euskararekin duten harremana

	87-88		88-9		89-90		90-1		91-2		92-3	
	Zkia.	%	Zkia.	%	Zkia.	%	Zkia.	%	Zkia.	%	Zkia.	%
Tesiak	32	100	39	100	47	100	43	100	70	100	74	100
Euskal Gaiak	17	53	12	31	20	43	13	30	32	46	25	34
Euskaraz	5	16	2	5	2	4	1	2	9	13	7	9

15. taula: Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateetan azken sei urteetan aurkeztu izan diren tesiak eta hala euskal gai nola euskararekin duten lotura*.

	87-88			88-9			88-90			90-1			91-2			92-3		
	Tes.	E.G.	Eusk.	Tes.	E.G.	Eus.	Tes.	E.G.	Eus.	Tes.	E.G.	Eus.	Tes.	E.G.	Eus.	Tes.	E.G.	Eus.
Filosofi eta Hezkuntz Zien. Fak.	6	2	1	10	5		9	3		7	2		17	7	4	8	3	1
Psikologi Fakultatea										4			11	4	1	7		1
Filologi, Geografi eta Histori Fak.	10	10	2	7	5	2	13	10	2	10	6	1	11	8	1	17	6	3
Zuzenbide Fakultatea	4			4	1		3	1		3	1		4	2		2		
Gizarte eta Informazio Zien. Fak.	6	4	2	1			7	3		2			13	8	2	14	10	2
Ekonomi eta Enpresa-Zient. Fak.	4	1		12			9	1		11	4		10	1		14	3	
Arte Ederretako Fak.	2			5	1		6	2		6			4	2	1	12	3	
GUZTIRA	32	17	5	39	12	2	47	20	2	43	13	1	70	32	9	74	25	7

* Tesi hauek EHU-n irakurriak dira. Deustuko Unibertsitateko tesien zerrenda ere eskuratu dugu eta badakigu EHU-ko zenbait irakaslek tesia Deustun irakurri duela, baina ez gara ausartzen zerrenda egiten EHU-ko irakaslegoaren zerrenda fidagarria ez dugulako.

Ikerketekin hasteko, beste arlo batzuetan bezala ikerkuntza ere biziki hasi egin da Giza eta Gizarte Zientzietan eta, datuotan oinarrituta, esan daiteke ikerketaren gehitzeak euskal gaiaren gehitzea ere ekarri duela ondoko taulan ikusi daitekeenez (ikus **11. taula**). 1986. urtean 19 ikerketa egin ziren, surten ia 80. Orduan lauk zuten zerikusirik euskal gaiekin; egun ia erdiak, 37-k konkretuki.

Aurreko taula zenbaki indizeetan aurkeztu ezker (**12. taula**) Giza eta Gizarte Zientzietako ikerkuntza kopuruak ugaltze nabarmena izan duela somatzen da. Halere, zenbaki indizeek, edo beste edozein zenbakik, errealitatea desitxuratu egin dezake, 1986-ean ikerkuntz kopurua oso eskasa baitzen.

12. Taulan oinarrituz, ikerkuntzen kopuruak laukoztu egin diren bitartean euskal gaienak bederatzi aldiz hasi dira, baina zifra hauen irakurketak ezin gaitzake eraman triumfalismora ikerkuntz datuak oso koiunturalak direlako, urterik urte aldatu egiten dira eta. Era guztietara joera bikoitz baten esistentzia ukalezina da: alde batetik, Giza eta Gizarte Zientzien ikerkuntz kopurua handitzen dago eta, bestetik, ondorioz, hazkunde honek euskal gaien ugaltzea dakarrela dirudi.

Gehiago zehaztuz, (**13. eta 13.1. taulak**) ikerkuntzetan zeintzuk diren euskal gaiak arreta gehien eskaintzen dieten Sailak ezagutzeko interesgarria liteke. Datu hau benetan kezkagarria da, kasurik gehienetan ikertzeko joera eta, ondorioz, euskal gaiak ekiteko oso Sail gutxi duelako. Aipatu urteetan konstante bakarra dago: Garaiko Historia Sailarena. Besteekin gonbaratuz Garaiko Historia sailak ikerketa asko burutzen ditu eta euskal gaiak biziki eusten die. Horrexegatik, Sail honek euskal *gaietan* duen portzentaia ikerkuntzetan daukana gaintu egiten du beti. Gainera, Sail honen eraginez, Giza Zientzien 1988. urtetik gaurdaino beti izan dute portzentaia haundiagoa euskal *gaietan* ikerketa guztien portzentaian

baino. Gizarte Zientzietako Sailen kasuan, ordea, ia beti haundiagoa da ikerketetan duten pisua euskal gaietan dutena baino. Azken urteetan Gizarte Zientzien alorrean Sailen bat aipatzekotan Soziologiarena dugu. Gainontzeko Departamentuek biziki berdindu eta sakabanaturik daudelako euskal gaiak arretari dagokionean.

Azkenik, azken urteetan EHU-ko Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateetan aurkeztu izan diren tesien errebisio bat egin dugu, zenbat euskaraz egin diren seinatzeko eta zenbateraino oinarri modura euskal gaia hartu duten.

Taulan ikusi daitekeenez Giza eta Gizarte Zientzietako tesiak kontutan hartuta ondoko emaitzak ditugu: lehenik, gero eta tesi gehiago aurkezten da Gizarte Zientzietan; bigarrenik, euskal gaien batzuek azken urteetan %30-40-aren artean kokatzen da.

Fakultatea, Filologi, Geografi eta Histori, eta Gizarte eta Informazio Zientzietako fakultateetan aurkezturikoak dira gehienak. Behin eta berriro konstante bera aurkitzen dugu: histori, hizkuntzarekin lotuak, eta informazio/soziologi gaiak direla euskal gaiak gehien erlazionatzen direnak. Aipagarria da ere Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatea kasua (ikus 15. taula),

LABURTZEKO

1. Behintzat erabili izan den metodoaren arabera, Giza eta Gizarte Zientzietan euskal gaien presentzia ez da oso haundia. Hala eta guztiz ere, "euskal gaia"-ren definizio zehatzagoa beharko genuke, benetan neurgarria izan eta konklusio fidagarriak ateratzeko. Agian, kongresu honetako helburuetariko bat definizio horretarako erizpideak ezartzen joatea litzateke.

2. Giza eta Gizarte Zientzietan euskal gaiak oso kokapen zehatza dutela dirudi. Gehienetan, historiado, hezkuntzako, hizkuntzako eta soziologiako arlo konkretu batzuei lotuta agertzen da gehienetan. Karreretako Ikasketa Plangintzetan irakasgai oso zabalekin edo sarrerakoekin lotura agertzen dute euskal gaiak. Karrerak edo berezitasunak espezializatu ahala euskal gaiak desagertu egiten dira.

3. Aurrekoaren ondorioz, doktorego ikastaroetan eta graduondoko berezko tituloetan euskal gaien presentzia guztiz eskasa da, kasu oso konkretuetan izan ezik.

4. Ikerkuntzari dagokionean, hala ikerketetan nola doktorego tesietan, euskal gaien presentzia haundiagoa da, baina bereziki zenbait sailetan: Garaiko Historian, batez ere.

5. Euskal Herriko Unibertsitatea garatu eta lehen zikloetan Irakaslego euskalduna hedatu ahala euskal gaien premia, alde batetik, agian, desagertu egin daiteke eta, bestetik, beharbada ez du esplizituki agertu beharrik, eguneroko ekin-tza, baliabide, materiale, eta tresnerian txertatu egin daiteke eta. Era guztietara, euskal gaien portzentaiak beti, edo gehienetan, izaten dira euskaraz erakusten diren irakasgaiak baino gehiago. Beraz, euskara eta euskal gaien artean badago harremanik, baina "*euskal gaiaren*" edukia zabalagoa da, eta behar du izan.

6. Azkenik, eta hasierara bueltatuz, Ikasketa Plangintza Berriak ezarri ondoren neurketa koantitatiboa azterketa koantitiboaz osatu egin beharko litzateke.